



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

101. INFORMAZIO BULETINA

> 2015ko Ekaina



GIPUZKOA



NABARMENDU BEHARREKOA

> Euskadiko Eurohiriko ingurumenari buruzko mugaz gaindiko eskola-kongresua antolatu da

Joan den ekainaren 9an ospatu zen Irunen Euskal Eurohiriko ingurumenari buruzko eskola-kongresua. REDVERT ekimenean (Euskal Eurohiriaren Sare Berdea eta Urdina) kokatutako kongresu honek, 2011tik Euskal Eurohiriaren Mugaz gaindiko agentziak bultzatuta, Eurohiriaren lurraldeko korridore ekologikoen kartografia egitea du helburu, baita korridore horiek zaintzeko eta baloratzeko ekintza-plan bat eta estrategia bat egitea ere.

REDVERT proiektuaren baitan eskola-trukaketen programa bat garatzen da. Joan den ekainaren 9ko kongresuan, Ficoban (Irun), izan zen horren urteko bilera. Bigarren Hezkuntzako 400 ikaslek parte hartu zuten. Ikasleek ikasturtean zehar batera egindako txangoen bidez eta aurkezpena elkarrekin prestatuz egindako Eurohiriaren korridore ekologikoen gaineko lanak aurkezteko balio izan zuen kongresuak. 9 binomiotan antolatuta, parte hartu duten ikastetxeek egindako lanen emaitzak erakutsi zituzten, baita proposatutako ekintzak ere.

Jardunaldi honetako ondorioak REDVERT ekimenaren emaitzen aurkezpena dela eta uztailaren 9an egingo den kongresu profesionalean erakutsiko dira.

Informazio gehiago:

<http://redvert.net/>

[http://www.eurohiria.org/index.php?id=105&L=0&tx_ttnews\[tt_news\]=440&cHash=baf4b46764dd1155825ac4782ac7c4b7](http://www.eurohiria.org/index.php?id=105&L=0&tx_ttnews[tt_news]=440&cHash=baf4b46764dd1155825ac4782ac7c4b7)



> Euskadik hobera egin du Europa 2020ren adierazleetan

Eustatek argitaratutako azken emaitzekin bat etorritik, Euskadi Europa 2020 Estrategiaren bederatzi adierazletatik bostetan Europako batez bestekoaren (EB 28) gainetik kokatzen da, eta horietako batzuetan, zehazki Hezkuntzarekin lotutakoetan, 2020. urterako ezarritako helburua lortuta.

Zehazki, Euskadik balio hobek erregistratu ditu adierazle hauetan: Lehen energiaren kontsumoa, Energiaren azken kontsumoa, Garaia baino lehen eskola utzi dutenen tasa, Goi mailako hezkuntza maila eta Txirotasun- edo bazterkeria-arriskuan dauden herritarrak.

Aldiz, Okupazio Tasan Europako batez bestekoak baino balio okerragoak erakusten ditu, Barne-gastu gordina I+Gn, Negutegi-efektuko gasen igorpenak eta Energia berriztagarrien kuota.

Europako 2020 Estrategia Europako Batasuneko agenda komuna da, eta hazkunde adimentsua, iraunkorra eta bateratzailea lehenesten du Europako ekonomian egiturazko ahuleziak gainditzeko, lehiakortasuna eta produktibitatea hobetzeko eta merkatu sozialeko ekonomia iraunkorrari eusteko modu gisa. Hauek dira bost helburu nagusiak:

- 20 eta 64 urte arteko Europako biztanleriaren % 75ek lanean egon beharko luke.
- I+Gn, barneko gastuak BPGren % 3 lortu beharko luke.
- Klimaren eta energiaren arloan "20/20/20" helburua lortu beharko litzateke: negutegi-efektuko gasen igorpenak % 20 murriztu, energiaren kontsumoa % 20 aurreztu eta energia berriztagarrien kontsumoa % 20ra arte sustatu.
- Eskola-uztearen ehunekoak % 10 baino baxuagoa izan beharko luke eta belaunaldi gazteenaren % 40k behintzat goi mailako ikasketak eduki beharko litzazke eginda.
- EBren txirotasun-arriskuak 20 milioi pertsona gutxiagori egin beharko lioke mehatxu.

Helburu horien jarraipena Eustatek Euskadi osorako egindako eta metatutako aipatutako adierazleen bidez egiten da.

Informazio gehiago:

http://eu.eustat.eus/ci_ci/indicadores/ambito_99/temaseleccionado_50/indicadoresEstruc.html#axzz3eofrlxMZ



> Batzordeak Kohesio Politikaren exekuzioa hobetu nahi du

Europako Batzordeak inbertsio-galera saihesten eta kohesio-politikaren funtsak modu zuzenean eta proiektu egokietan gasta daitezzen bermatzen lagundu nahi die Estatu kideei. Hori dela eta, Eskualdeko Politikaren Komisarioak, Corina Crețu-k, plan berri bat aurkeztu du. Horrekin, Funtsak inbertitzeko eta kudeatzeko modua hobetzeko administrazio-gaitasuna sustatu nahi du.

Kohesio Politikaren exekuzioa hobetzeko ekimena lau ardatzen inguruan egituratzen da:

1. Kohesio Politikaren exekuzioa hobetzeko dagoeneko sortutako Laneko Taldean garatutako lanarekin jarraitzea, neurri egindako ekintza taldeak erabilita, 2007-2013 programazio-aldiko gainerako inbertsioak modu eraginkorrean erabiltzeko nazioko eta eskualdeko administrazioei laguntzak emanda.
2. 2014-2020 aldiko programetarako Estatu kideen eta eskualdeen gaitasun administratiboaren garapena, Laneko Taldearen bigarren fasearen eta beste neurri batzuen bidez: gaitasunak bateratzea, adituen trukaketa, prestakuntza eta laguntza teknikoak.
3. Garapen ekonomiko baxua duten eskualdeak eta hainbat urtetan BPGren hazkunde negatiboa izan duten eskualdeak atzean geratzearen arrazoiak aztertzea. Joera hori kezagarria da kohesio-politikarako; izan ere, horren helburua Europako hainbat eskualdetako garapen mailen arteko aldeak murriztea da.
4. Adituen talde bat sortzea Estatu kideek arauak sinpletzeari emandako erantzuna modu independentean ebaluatzeko eta sinplifikazioko aparteko aukerak identifikatzeko.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/index.cfm/es/policy/how/improving-investment/



KOHESIO-POLITIKA

> Europako Gizarte Funtsak “AUTOENPLEGUA SUSTATZEN” foru-ekimena 2,9 milioi euroekin kofinantzatuko du

“AUTOENPLEGUA SUSTATZEN” ekimen honen helburua Gipuzkoan, modu pertsonalizatuan, pertsonen enpresa-proiektuen garapen-prozesuetan eta enpresak sortzeko garaian babestu eta laguntza eskaintzea da, batez ere, autoenpleguaren bidez.

Eusko Jurlaritzak, maiatzaren 28an, Europako Gizarte Funtsaren kofinantzaketarako sarbiderako deialdia ebatzi du. 2014-2020 Euskal Autonomia Erkidegoaren Europako Gizarte Funtsa Programa Eragilean kokatzen da eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Berrikuntza, Nekazaritza Garapen eta Turismo Sailaren bidez aurkeztutako “AUTOENPLEGUA SUSTATZEN” proposamena onartu du.

AUTOENPLEGUA SUSTATZEN ekimenak bi jarduera-lerro gaitzen ditu:

- TXEKIN: Enpresak sortzeko prozesuetan enpresa-proiektuei laguntzea.
- EMEKIN: Emakumeek sustatutako enpresak sortzeko prozesuei lagundu eta horiek sustatzea

“AUTOENPLEGUA SUSTATZEN” ekimenak GIPUZKOA EKINTZAILEA estrategia sustatu nahi du. Horrek beste ekimen batzuk hartzen ditu enpresa berriak sortzearen alorrean azpiegitura fisikoak eta laguntza-azpiegiturak, OTEBen sustapena, ikaskuntzari laguntzeko finantza-tresnak; horrek laguntza komunitarioa ere badu, batez ere Eskualdeko Garapenaren Europako Funtsaren (EGEF) bidez.

Informazio gehiago:

<http://berrikuntzaetaezagutza.igipuzkoa.eus/-/europako-gizarte-funtsak>



> Turismo-sektorerako Donostia 2016 mugaz gaindiko bigarren topaketa egin da

Euskadiko Eurohiriaren 60 enpresa eta erakunde turistikoko inguru bildu dira Baionan mugaz gaindiko bigarren topaketan. Topaketa hori 2016an Donostian egingo den Europako kultura hiriburutzaren dela eta egin da.

Topaketa horien helburua (lehenengoa urtarrilean egin zen Donostia 2016ren egoitzan) sektore turistikoko iraupen luzeko harremanak ezartzea da. Horrela, ekimen bateratuak garatu ahal izango dira Europako hiriburutzaren testuinguruan, baina hortik harago ere iraungo dute.

Bigarren topaketa honi esker, parte-hartzaileek hurbilagoz ezagutu ahal izan dute turismoaren errealitatea Eurohiriaren lurralde bakoitzean (Irun, Oarsoaldea & Ordizia, Hendaia, Donibane Lohizune & Biarritz). Kultura hiriburutzaren testuinguruan hasietako mugaz gaindiko proiektu desberdinen inguruko aurkezpenak eta elkarrizketak ere izan dira.

Topaketa horiek European Enterprise Network-en laguntza dute. Horri esker, enpresa parte-hartzaileek Europako sare honetako harremanak eta bazkideak bilatzeko plataforma erabili ahal izango dute.

Informazio gehiago:

<http://www.bihartean.com/secciones/actualidad/noticias/detalle-noticia.php?id=96&lang=eu>



> INTERREG EUROPE eta SUDOE 2014-2020 Programa berriak onartu dira

Europako Batzardeak, ekainean, INTERREG EUROPE 2014-2020 programari, Estatu Kide guztien artean eskualde arteko lankidetzeta programa berriari, eta Europako Hegomendebaldeko Eremua babesteko SUDOE 2014-2020 Programari ekin dio.

INTERREG EUROPE 2014-2020 programak Eskualdeko Garapenaren Europako Funtsak (EGEF) eskainitako 359 milioi euro baino gehiagoko finantzaketa izango du. Esperientzien trukaketa babestean, jardunbide egokien transferentzian eta ekimen bateratuei dagokienez eskualdeen elkarlanean oinarrituko da. Programak Europar Batasuneko, Norvegiako eta Suitzako lurralde osoa hartzen du eta bi ekintza nagusi aurrez ikusten ditu a) Lau helburu tematikoren baitan partekatutako eskualdeko politikaren gaian lan egitea ahalbidetzen duten eskualde arteko lankidetzeta-proiektuak finantzatzea. b) Lau helburu tematikoak beteko dituzten politiken ikaskuntza-plataformen bidez Europako eskualde guztiei laguntzea.

SUDOE 2014-2020 programak lurralde hauek hartzen ditu: Espainia osoa, Kanariar Uharteak izan ezik, Portugal osoa, Madeira eta Azoreak izan ezik, Frantziako hegomendebaldeko eskualdeak: Akitania, Auvernia, Languedoc-Rosellón, Lemosín, Midi-Pyrénées eta Poitou-Charentes; Gibraltar eta Andorra. 2014-2020 aldian Eskualdeko Garapenaren Europako Funtsaren (EGEF) finantza-laguntza izango du programak, 100 milioi euro baino gehiagokoa. Hauek dira SUDOE programaren lehenetsitako bost ardatzak: Hazkunde adimentsu eta iraunkorrerako berrikuntza-gaitasuna sustatzea, ETE-en lehiakortasuna eta nazioartekotzea sustatzea, eraikin publikoetan eta etxebizitzetan energia-eraginkortasuneko politikak hobetzea, arriskuak modu eraginkorragoan saihestu eta kudeatzea, ingurumena babestea eta baliabideen erabilera eraginkorra sustatzea.

Informazio gehiago:

<http://www.interreg4c.eu/interreg-europe/>

<http://www.interreg-sudoe.eu/>



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza
Departamentua
Departamento de
Hacienda y Finanzas



ETA EUROPAR BATASUNA

> 2015ko Ekaina

EUROPA 2020 ESTRATEGIA

> Europak sozietateen gaineko zerga ekitatibo eta eraginkorrago baterantz aurrera egin nahi du

Europako Batzardeak Ekintza Plan bat aurkeztu du. Horrekin, sozietateen gaineko zergaren erreforma bultzatu nahi du Europar Batasunean. Ekintza Plan berri honek hainbat ekimen erakusten ditu zerga-saihesteei aurre egiteko, diru-sarrera iraunkorrak bermatzeko eta enpresetarako merkatu bakarra sustatzeko.

Plan berri honek aintzat hartutako ekintza garrantzitsuak hauek dira: sozietateen gaineko zergaren zerga-oinarri kontsolidatu komuna bultzatzeko estrategia martxan jartzea eta irabaziak sortzen diren lekuan ezarpen efektiboa bermatzeko testuingurua.

Modu paraleloan, Batzardeak sozietateen gaineko zerga alorrean gardentasunari buruzko kontsulta publikoa ere jarri du martxan Europar Batasunean. Kontsulta honen helburua da jakitea enpresek ordaintzen dituzten zergei buruzko informazio gehiago ematera derrigortuz gero, zerga-saihesteak eta zerga-plangintza erasokorra konponduko liratekeen.

Informazio gehiago:

http://europa.eu/rapid/press-release_IP-15-5188_en.htm

http://ec.europa.eu/taxation_customs/taxation/company_tax/fairer_corporate_taxation/index_en.htm

http://ec.europa.eu/finance/consultations/2015/further-corporate-tax-transparency/index_en.htm



> Europako Batasun Ekonomikoa eta Diru Batasuna sustatzeko planaren aurkezpena

Europako bost erakundeetako presidentek (Europako Batzordea, Euroaren Gailurra, Eurotaldea, Europako Banku Zentrala eta Europako Parlamentua) "Completing Europe's Economic and Monetary Union" izeneko txosten bat argitaratu dute, 2014ko urrian egindako Europako Gailurrean Europako liderrek enkargatuta. Bertan, 2015eko uztailaren 1etika aurrera, Batasun Ekonomikoan eta Diru Batasunean sakontzeko eta beranduenera jota 2025ean osatzeko plana aurkeztu dute.

Plan hori gauzatzeko, txostenak neurri zehatzak aipatzen ditu eta neurri horiek bi etapatan jarri beharko dira martxan:

- epe laburrean, ekintza bidezko bateratzearen moduko jarduerak, Erabakitze Funtz Bakarraren autonomia handia edo Gordailuak Bermatzeko Europako Funtzaren sorrera barne
- epe laburrera, bat-egite prozesu berri bat planteatzen da herrialde guztiek asalduren aurrean erresistentzia-gaitasun handiagoa izan dezaten. Horretarako, beharrezkoa da subiranotasun partekatu handiagoko eta hain nazionala ez den fase bat. Horrek, denborarekin, zerga-egonkortasun handiagoa ekarriko luke, eta azken kasuan, Altxor komunaren sorrera

2017ko udaberrian, Europar Batasunak subiranotasun komun handiago hau partekatzeko moduari buruzko proposamen zehatzak aurkeztuko ditu.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/priorities/economic-monetary-union/docs/5-presidents-report_en.pdf



DOKUMENTU INTERESGARRIAK

> Europa 2020 Indizea: Europar Batasuneko herrialdeek, eskualdeek eta hiriek 2020ko helburuetarantz (Europar Batasuna) duten aurrerapena

Egindako aurrerapenekin lotuta, Europa 2020 Estrategiaren helburuak lortzeko Europako eskualdeen eta hirien kokapena aztertzen duen txostena. Europa 2020 adierazle sintetikoaren bidez, beste hiru adierazlez osatuta, Batasuneko herrialdeen, eskualdeen eta hirien aurrerapena neurtzen da.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/focus/2015_01_europe2020_index.pdf

> Joera ekonomikoak (Eurostat)

Europar Batasuneko eta herrialde kideetako egoera ekonomikoari buruzko datu estatistikoak eta joerazkoak ikusteko tresna interaktiboa. Aplikazioak, oinarritzotik hasi eta profesionalera arte, 8 adierazle ekonomiko nagusiren bilakaeraren ikuspegi bizkorra eta erraza eskaintzen die erabiltzaileei: enplegurik eza, inflazioa, ekoizpen industrialia, defizit nazionala, zor nazionala, ekoizpen-kostuak, BPG eta BPG per capita.

Informazio gehiago:

<http://ec.europa.eu/eurostat/cache/infographs/economy/desktop/index.html>



> Bizitza Kalitatea Europan (Eurostat)

Europako bulego estatistikoak kalkulaturako bizitza-kalitateari buruzko adierazleen azken emaitzak biltzen dituen infografia.

Oro har, estatistika ofizialek bilakaera ekonomikoa eta soziala deskribatzen dute BPGren moduko adierazleen erabileraren bidez. Hala eta guztiz ere, gaur egun, guztiz onartuta dago BPG, bere horretan, ez dela nahikoa pertsonen egoera zeinen ona edo txarra den frogatzeko. Bizitza-kalitatea kontzeptu orokorragoa da, faktoreen gama zabala hartzen du eta herritarrek eguneroko bizitzan eta horiei buruz egindako iritzi subjektiboetan baloratzen dute.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/eurostat/cache/infographs/qol/index_en.html



EUROPAKO DEIALDIAK

Jarraian, Gipuzkoatik interesgarriak izan daitezkeen eta azken hilabeteen argitaratutako deialdi nagusiei egindako erreferentziak biltzen dira. Deialdiak aukeratzeko orduan, irizpide gisa hartu dira horien gaia, hautagaitzak aurkezteko epea, egokitasuna eta hautagaiak izan daitezkeen eragileen aukeragarritasuna.

- **INTERREG EUROPE 2014-2020. 2015eko deialdia** ([info +](#))
- **ReferNet – CEDEFOP-en Hezkuntza eta Lanbide Heziketa alorreko Europako Sarea - 2015 - GP/DSI/ReferNet_FPA/001/15** ([info +](#))
- **LIFE 2015 Programa – Ingurumen Azpiprograma - LIFE+** ([info +](#))
- **PRIME TIME DONOSTIA2016: Europako kulturarekin zerikusia duten edukien hedapenerako telebista-formatuak** ([info +](#))
- **DONOSTIA 2016 EUROPA ZURE PLATEREAN. Donostia 2016ren proiektu gastronomiko-kulturalaren kudeaketa-zerbitzuak kontratatzea** ([info +](#))